

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako LHko 17 ikastetxeetako 1.140 gaztek Berrikuntza, Sorkuntza eta Ekintzaitzaren VIII astean parte hartuko dute

Apirilaren 1etik 5era ospatuko da Civicanen, nahiz eta zenbait ekintza Tuteran eta Elizondon ere gauzatuko diren

Ostirala, 2019.eko martxoak 29

Hezkuntza Departamentuak eta Caja Navarra Fundazioak Berrikuntza, Sorkuntza eta Ekintzaitzaren zortzigarren astea antolatu dute. Ekimena apirilaren 1ean hasiko da eta 5ean amaitu. Hitzordua Caja Navarra Fundazioaren Civicanen izango da eta nahiz eta egitarauaren gehiengo bertan gauzatuko den, Tuteran LHI ETI eta Elizondoko Lanbide Eskolan ere jardunaldiak egingo dira proiektu hori Nafarroako gainontzeko zonaldeetara ere gerturatzeko asmoz.

Astea Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleei dago zuzendua eta bertan komunikazioa, sormen teknikak zein lana aurkitzeko estrategiak lantzeko tailerrak egingo dira. Gainera, ikastetxe ezberdinetako zuzendaritza taldeentzako ekintza formatiboak eskainiko dira berrikuntza eta ekintzaitzarekin lotuta.

Zortzigarren edizio honek jarraipena emanen dio 2017an lehendabizikoz Elizondon egindako ekimenari. Jardunaldi hau osotasunean euskaraz egingo da Bera eta Iruñeko Donibane LHko ikasleekin.

Jardunaldi hauetan Nafarroako 17 ikastetxeetako Lanbide Heziketako Goi Mailako lehen kurtsoko 1.100 ikasleek hartuko dute parte. Jardunaldien helburua Lanbide Heziectaren arloan berrikuntza, sormena eta ekintzaitza bultzatzea da, hortaz zikloetako ikasle eta irakasleei daude zuzenduak. Ekimen berritzailea da, izan ere egun ez da horrelakorik ospatzen beste erkidegoetan.

Helburuetariko bat LHko ikasleei metodologia berriak eskaintzea da, berrikuntza eta sormenaren bidez ekintzaitzaren kulturaren sar daitezen. Horretarako, 18 tailer ezberdin egingen dira, guztiak praktikoak, trebetasun eta ahalmen ezberdinak indartzeko.

Jardunaldien ordutegia 09:00etatik 13:00etara izanen da, astelehenetik, apirilaren 5a bitartean. Jardunaldietan parte hartuko dute CEIN, Nafarroako Ganbera, Acción Contra el Hambre, Posthac, AMEDNA, AJE, Eder Partzuergoa eta Navarra Televisión.